

Jolasaren arakatzea eta planteamendua genero-ikuspegitik Haur Hezkuntzako bost urteko gela batean

Enara Retes-Nuñez¹, Josune Rodriguez-Negro¹, Nagore Martinez-Merino^{1,2}

¹Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

²GIKAFIT (Gizartea, Kirola eta Ariketa Fisikoa Ikerkuntza Taldea)

Azterlan honek helburu izan du Haur Hezkuntzako 5 urteko gela batean hurrek gauzatzen duten jolas sinbolikoaren eta generoaren arteko harremana ikertzea. Ikerketa honen parte-hartzaileak Bizkaiko udalerrri bateko ikastetxeko Haur Hezkuntzako 5 urteko 15 haur izan dira. Horretarako hiru astetan zehar egindako behaketa ez parte-hartzaileetan, haurren jolas sinbolikoan genero-adierazpen desberdinak identifikatu dira. Horrela, Haur Hezkuntzako hurrek jada generorolak eta genero-estereotipoak barneratuta dituztela ondorioztatu da lan honetan. Esaterako, genero zehatzei lotutako rol eta estereotipoak plazaratu eta txokoan zein moztaroen aukeraketan hautaketa bereziak egin ziren egindako behaketetan. Genero-arrakala ikusita, hezkuntza-komunitateak oraindik betebeharrak handia duela ondorioztatu da. Zentzu horretan, hezitzaileek hausnarketara bideratutako galdera edota esku-hartzeen bidez generorolak eta genero-estereotipoak deseraikitzen lagundu ahalko lukete.

GAKO-HITZAK: Jolas sinbolikoa · Genero-estereotipoak · Generorolak · Haur Hezkuntza.

Exploration and approach to play from a gender perspective in a five-year-old preschool room

The aim of this research was to investigate the relationship between symbolic play and gender of children in preschool. Participants were 15 five-year-old children from a school in Biscay. The qualitative research carried out has led to identify the different manifestations of gender and to detect its impact on the development of them. It has been detected that preschool children have already internalized gender roles and stereotypes in this research. Specifically, it has been detected different manifestations of roles and stereotypes associated with specific genders and differentiated selections of corners and costumes. Taking into account the existence of the gender gap, it has been concluded that the educational community has an important role. In this sense, educators should try to deconstruct gender roles and stereotypes through questions and/or interventions that could help reflection.

KEY WORDS: Symbolic play · Market-led · Gender stereotypes · Gender roles preschool.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.5081>

Jasotze-data: 2024-01-24

Onartze-data: 2024-03-08

Sarrera

75/2023 Haur Hezkuntzako Dekretuak garrantzi handia ematen dio jolasaren bidez esploratu eta ikasteari, bertan azaltzen den antzera, hori baita haurraren garapenaren muina Haur Hezkuntzako etapan. Jolasa adierazpenerako eta komunikaziorako zein garapen motor, kognitibo, afektibo, sexual eta gizarteratzeko aukeratzat har daiteke (Adam *et al.*, 2022; Cankaya *et al.*, 2023; Herranz, 2013). Jolasa sentipenen, mugimenduen eta sortzen diren harreman desberdinen bidez, norbere burua aurkitzeko, arakatzeko eta esperimintatzeko aukera eskaintzen du, ondorioz, norbere burua ezagutu eta munduari buruzko kontzeptuak sortzen laguntzen du (Lester eta Russel, 2010). Jolasa haurren bizitzan bereziki garrantzitsua da, errealitatera hurbiltzeko eta ingurua ulertzeko modu naturala baita (García eta Llull, 2009), eta horrek ingurura moldatzeko ere laguntzen die (Gomez, 2012).

Jolas sinbolikoa, objektuen esanahia eraldatzeko eta pentsamendua irudikatzen gaitasuna duen jolas mota da (Lillard *et al.*, 2013; Ungerer eta Sigman, 1981). Errealitatea fikzioan transformatzeko jolasa da (Ruiz de Velasco-Galvez eta Abad-Molina, 2011). Hiru jolas sinboliko mota desberdinak daitezke: objektu baten ordez beste objektu edo pertsona bat jartzea, irudikatutako propietate bat objektu edo pertsona bati egokitzea, edo falta den objektu edo pertsona bati erreferentzia egitea (Leslie, 1987). Jolas sinbolikoen artean, besteak beste etxeko jolasak, otso edo mamuak dituzten beldurrezko jolasak, heldu-rolak imitatzen dituzten jolasak, edota jolas presinbolikoak aurki ditzakegu (Ruiz de Velasco-Galvez eta Abad-Molina, 2011). Horrela, 18-24 hilabeterekin haurrak jolas sinbolikoan aritzen hasten dira (Lillard *et al.*, 2013). Hasieran, indibidualki egiten den arren, haurrak pentsamendu sinbolikoa garatu ahala, errealitatera hurbildu eta jarduera kolektibo bihurtzen du, gizarte-egoerak errepikatuz (Prat-Tarrida, 2013). Haurrak, «izango balitz bezala»-tik hasten du jolas mota hau; objektuei zein norbere buruari era guztietako esanahiak ematen dizkie, irudimenezko egoerak simulatzen ditu eta rol desberdinak interpretatzen ditu. Jolas mota hau eboluzionatuz doa, irudikatzen duten errealitatera gero eta gehiago hurbilduz (Licon, 2000). Jolas sinbolikoaren bidez, haurrak behaketaren bidez ikasi dituen jokabideak, bizipenak, emozioak eta sentimenduak azaleratuko ditu, gainerako haurrekin harremanak sortzearekin batera (Scott eta Cogburn, 2023; Thiemann-Bourque *et al.*, 2019). Ondorioz, Ortegari (1992) jarraituz, konplexutasun handiko jolasak dira, haurrari, izan ezin den baina izatera iritsi nahi duen hori izatera heltzen laguntzen baitiote. Metaforen bidez, haurraren errealitatean, bere irudimenezko esperientziak sortzen dira, beste norbait, zerbait edota espazio bat izanik, norbera izatera heltzeko asmoz (Ruiz de Velasco-Galvez eta Abad-Molina, 2011).

Bestalde, 75/2023 Dekretuaren arabera, Haur Hezkuntzako etapan aukeraberdintasuna bermatu behar da, edozein diskriminazio mota alde batera utziz, esaterako, pertsonala, kulturala, generoari lotutakoa edota sexu-joera zein nortasunagatik bultzatutakoa. Haur Hezkuntzako Dekretuak zehazten duenaren arabera, ikasleen aukeraberdintasuna sustatu behar da. Azken finean, hezkuntza inklusiboa garatzea helburu izanda, hezkidetza ezinbestekotzat hartzen da eta horretarako, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, besteak beste, Hezkidetza eta

Genero Indarkeria Planean oinarritu behar da (75/2023 Dekretua). Hezkidetzak, sexu-diskriminazioa saihestuz eta genero-desberdintasunak alde batera utzita, pertsona libre gisa garatu daitezkeen, haurrak berdintasunean heztea helburu duen prozesu hezitzailea da (Gutiérrez, 2010).

Hezkuntza testuinguru egokia da gizonen eta emakumeen aukera-berdintasunean aurrerapausoak emateko (Suberviola Ovejas, 2012). Berebiziko garrantzia duen gaia da gaur egungo Hezkuntza Sistemak, ikasleei prestakuntza integrala eskaintzeko baliabide gisa, etorkizunean errespetuzko jarrerak izan ditzaten prestatzen dituelako, genero-desberdintasunak eta alderdi diskriminatzaileak alde batera utziz (Aragón-González *et al.*, 2020). Hortaz, Arrondok eta Sagastumek (1992) dioten antzera, haurrek haien motibazioetik eratorritakoak diren jokabideak aukeratzeko askatasuna ematean datza, hau da, rol-banaketaekin amaituz, pertsona bakoitzak dituen bereizgarriak kontuan hartuta jokatzeko datza. Hala ere, hezkidetzak posible izan dadin, gizartean esku hartzen duten eragile guztien elkarlana behar da, esaterako, eskolaz haratago, familien, komunikabideen eta antzekoen eginahala (Döring eta Mohseni, 2019; Solbes-Canales *et al.*, 2020). Hau da, azken finean, kalitatezko eskola bat sortzen laguntzen duten kolektibo guztiek norabide berean lan egitea ezinbestekoa da, modu koordinatuan, kohesionatuan eta eraikitzailean arituz (Castilla, 2008).

Haurrak jaioberriak direnetik, desberdin tratatuak izaten dira helduen aldetik, haien sexua bata izan zein bestea izan, itxaropen eta lorpen batzuk edo beste batzuk izango dituztela helarazten zaie (Imhoff eta Hoffman, 2023). Pertsona orok, edozein sexu izanda ere, norberaren buruaren gaineko irudi mentala garatzen du, bere barne-mundu konplexuari zentzua ematen dion eredu oinarriturik, identitate horrek bizitza kognitibo, afektibo, emozional eta jarreretan finkapena izanik. Identitatearen eta generoaren arteko loturari genero-identitate deritzaio. Kulturak eraginda, generoaren araberrako itxaropen, norma, arau, rol, balio, sinesmen eta jarrera zehatz batzuk esleitzen dira, identitatearen eraikuntzan eragin zuzena dutenak (León *et al.*, 2020).

Haur Hezkuntzako ikasleek jada genero-rolak eta genero-estereotipoak barneratuta dituzte (Carrasco-Rueda *et al.*, 2023; King *et al.*, 2021). Haurrek haien haurtzaroen erabiltzen dituzten jostailuak eta sortzen dituzten jolasak erabakigarriak dira haien identitatea eraikitzeke orduan, bai eta genero-rola eta -estereotipoak erreproduzitzeko eran (Diaz, 2011). Azken urteotan, gai honen inguruko kontzientzia handitu da eta jostailu ez-sexisten aldeko zenbait kanpaina aurrera eramane dira (Asociación Española de Fabricantes de Juguetes, 2022). Hala ere, oraindik ere gizarteak eskaintzen dituen jostailuek generoaren araberrako jokabide-ereduak transmititzen dituzte sarritan, aldi berean, genero bakoitzerako parte-hartze desberdina bultzatzen dutelarik (King *et al.*, 2020; Skočajić *et al.*, 2020). Femeninotzat hartzen dituzten jostailuen kasuan, jolas-aldizkarietan edota telebistan horiekin jolasean neskek soilik ikusteaz gain, askoz gehiago zaintzen da hizkuntza, modu gozo eta samurberan erabiltzen baita, hauskorragoa egiten duten txikigarriak txertatuz. Jostailu horiek, lanbideen, etxeko lanen imitazioen, edertasun-jostailuen, apaingarri pertsonalen eta panpinen ingurukoak izan ohi dira (Qian *et*

al., 2023; Turrado, 2017). Bestetik, beste generoarekin lotzen dituzten jostailuak haurrak esploratzera, esperimentatzera eta mundua aurkitzera bultzatzen dituzten objektuak dira, aurretik aipatutakoekin konparatuta, karga bortitz handiagoarekin sortutakoak eta zaintzarako lekurik uzten ez dutenak (Turrado, 2017).

Baina ba al du generoak haurren jolas sinbolikoan eraginik? Haien jolasa desberdin bideratzea eragiten al du? Aurreko guztia kontuan izanda eta galdera hauei erantzuna emateko nahian, ikerketa honen helburua izan da Haur Hezkuntzako 5 urteko gela batean haurren jolas sinbolikoaren eta generoaren arteko harremana aztertzea.

1. Metodoa

Haur Hezkuntzako etapan hurrek gauzatzen duten jolas sinbolikoaren eta generoaren arteko harremana ikertzea helburu izanik, ikerketa honek metodologia kualitatiboa izan du oinarri. Izan ere, metodologia kualitatiboan kasu zehatzak zein pertsonen portaerak edo izandako bizipenak ulertzea bilatzen da (Ruiz Olabuénaga, 2007). Metodologia kualitatiboan erabilitako tekniketako bat behaketa da, zeinaren helburua, giza portaeraren espontaneotasunari tokia eginez, bere ohiko testuinguruan hauteman daitekeen errealtatearen analisia egitea baita (Anguera *et al.*, 2020). Horrela, Haur Hezkuntzako 5 urteko gela baten errealtatera gerturatzea izan du helburu ikerketa honek, eta horretarako, behaketa-metodologian oinarritu da. Haurren jolasa behatzailearen inolako esku-hartzerik gabe behatu da, behatzailearen eta haurren distantzia zainduz, eta haien jarreran ahalik eta gutxien eragitea helburu izanik (Mozés, 2016). Ikerketaren helburuari jarraikiz, eta aurrez zehazki zer datu azaleratuko zen jakin gabe, behaketa ez-sistematiko kualitatiboa egin da (Anguera *et al.*, 2020), jolas sinbolikoan agertutako genero-adierazpen guztiak jasotzea xede izanik.

1.1. Parte-hartzaileak, testuingurua eta datu-bilketa

Bizkaiko udalerrri bateko ikastetxe batean gauzatu ziren behaketak. Aukeratutako 5 urteko gelako haur-taldea 15 hurrek osatzen zuten, 7 neska eta 8 mutil gisa irakurri zirenak eta momentura arte, beren burua horrela identifikatu zutenak. Bost urteko gela horretako testuingurura hurbiltzeko asmoz, bertako eskolako dinamikari zein eskaintako material eta espazioari erreparatzea ere komeni da ikerketa honen nondik norakoak ulertzeko. Dinamikari dagokionez, haurrak, gela nagusian zeudenean, hau da, ekintza zehatzak egin behar ez zituztenean, ingelesa eta musika esaterako, askatasunez mugitzen ziren txokoetan zehar. Hurrek txokoetan lan egiten zuten, saioaren hasieran txoko bat aukeratuta. Txokoetan aritzen ziren denboran zehar nahi beste aldaketa egin zezaketen, inolako frekuentziarik eta finkatutako iraupenik gabe eta ez zuten txoko guztietatik igarotzeko beharrik ere. Ezartzen zen arau bakarra zen txoko bakoitzeko pertsona kopurua errespetatzea. Tokirik gabe geratuz gero, tokia izan arte itxaron behar zuten edo beste txoko bat aukeratu. Material-eskaintzari dagokionez, txoko bakoitzean, indarrean zegoen gaitasuna garatzeari bideratutako materialak eskaintzen ziren. Lan honen behaketa egindako aldian, zehazki espazio eta material hauek zeuden:

- Eraikuntza-txokoa: eraikuntzari ekiteko material mota ugari, hala nola «legoak», piezak zein pertsonaiak, «bloke magnetikoak»...
- Marrazketa-txokoa: margoak, tenperak, artaziak, kartulinak, marrazkiak egiteko materiala aurki zezaketen txoko honetan.
- Matematika-txokoa: zenbaki, segida, forma geometriko eta antzekoekin jolastu, ikasi eta esperimentatzeko materialak.
- Hizkuntza-txokoa: letra-jolasak eta ipuinak.
- Ordenagailua: ordenagailuan jolasteko aukera zuten txoko honetan.
- Etxe-txokoa: jolas sinbolikora bideratutako etxean aurki ditzakegun tresna eta materialak. Besteak beste, mahai eta aulkiak, sukaldea, lisaburdina, etxeko telefonoa, dirua, erosketa-poltsak, erratza, hainbat janari eta produktu, panpinak, orrazia eta lehorgailua.

Behatu beharreko guztia modu esanguratsuan biltzeko asmoz, behaketa-taula bat sortu zen *ad hoc*, datuak interpretatu eta ondorioak ateratzeko. Aipatutako behaketa-taulan, behaketa egindako eguna, espazioa, bertan zeuden haurren deskribapena, taldekatze mota, erabilitako materiala, izandako elkarrizketak eta zer genero-adierazpen izan zituzten zehaztu ziren (ikus 1. taula). Datuak bilduta, taula txikiagoetan sailkatu ziren, informazioa antolatzeko eta datuen analisia errazteko helburuarekin.

1. taula. Erabilitako behaketa-taula.

Eguna	
Espazioa	Eraikuntza-txokoa / Marrazketa-txokoa / Matematika-txokoa / Hizkuntza-txokoa / Ordenagailua / Etxe-txokoa / Psikomotrizitate-gela / Jolastokia
Nor dago bertan?	
Taldekatzea	
Materiala	
Elkarrizketa	
Behatutako genero-adierazpenak eta interpretazioa	

Halaber, gaiarekin lotutako beste zenbait jarrera, joera edota egoera gertatzen ari zirela ikusita, taulaz kanpo hainbat datu bildu ziren, esaterako, txokoen aukeraketa. Horretarako, beste taula bat sortu zen eta, bertan, haurrek egindako lehenengo aukeraketa eta ordu-erdi igarota aldaketarik egin zuten ala ez jaso zen. Behaketa-prozesuan zehar jasotako datuak biltzen zituen azken taula bat gauzatu zen, inauterietako ospakizuna zela eta, haurrek aukeratutako moztaroen datuekin. Bertan, haurrek egindako hautaketa eta horren ezaugarriak jaso ziren, esaterako, aldizkariari begira, mutilen edo nesken atalean ageritakoak ziren eta makillaje edota

takoidunak ziren. Aipatutako azken bi tauletan, haurren generoa bereizteko, bi kolore erabili ziren; horiz mutilak aurki ditzakegu eta berdez neskek. Haurren babesa eta anonimotasuna bermatzeko jomugarekin, haurrak identifikatzeko, errealitatearekin bat ez datozen ezizenak erabili dira.

1.2. Prozedura eta datuen analisisa

Aipatutako behaketak ez parte-hartzaileak izan ziren eta hiru asteko iraupena izan zuten, 2023ko otsailaren 15etik, 2023ko martxoaren 8ra arte. Hiru aste horietan zehar, haur horien jokabide eta jarrerak astelehenetik ostiralera behatu ziren, eskola-orduen ehuneko altuena igarotzen zuten gela nagusian, baina, baita ere, jolastokian eta psikomotrizitate-gelan. Hau da, eskola-ordu eta espazio guztietan egin ziren behaketak, musika eta ingeleseko orduetan izan ezik. Horiek horrela, astean zehar 22 orduz behatu zen haur-taldea eta behaketa-prozesuak 66 orduko iraupena izan zuen. Bertan, hurrek hiru aste horietan zehar izandako txokoetan eta, batez ere, jolas sinbolikoa aurrera eraman zezaketen guneetan izandako genero-adierazpenak jaso ziren idatziz, inolako grabagailu edota tresnarik erabili gabe. Jasotako datuen analisiari dagokionez, Ruíz-Olabuenagak (2007) proposatutako edukien analisiaren teknika erabili ondoren, kategorikoki sailkatu ziren datuak, lortutako datu guztiak antolatuta. Alde batetik, jolas sinbolikoa gauzatzean, hurrek hartzen zituzten rolak eta horiei atxikitzen zizkieten jarrerak aztertu ziren. Bestetik, haien artean zituzten elkarrizketetan erabili ohi zuten hiztegia arakatu zen. Azkenik, materialen aukeraketan eta erabileran daukaten estereotipoak eta genero bakoitzak hartzen dituen espazioak aztertu ziren.

2. Emaitzak eta eztabaida

Ikerketa honen helburu nagusia izan zen Haur Hezkuntzako 5 urteko gela batean hurrek aurrera daramaten jolas sinbolikoaren eta genero-adierazpenaren arteko harremana ezagutzea. Ikerketaren ekarpenik esanguratsuenak haurren arteko taldekatzeak, mozorroen aukeraketa, genero-estereotipoak eta genero-rolak jolas sinbolikoan, eta txokoen aukeraketa aztertzea izan zen.

2.1. Haurren arteko taldekatzeak

Behaketak egin diren heinean, hurrek egin dituzten taldekatze motak aztertu dira. Alde batetik, talde txikietan lan egin behar izan dutenean, egindako behaketetan, taldekatzeak haien kabuz egiteko eskatu die hezitzaileak. Une horretan, argi berezita ikus daitezke hiru mota hauetako taldeak: nesken taldea, mutilen taldea eta mistoa den azken talde bat (ikus 2. taula). Aipatzekoa da azkenengo talde hori, behaketak egin diren egunetan, beste taldeetan sartu ezin izan diren hurrez osatutakoa izan dela. Hau da, ez da inoiz borondatezko aukeraketarik izan egindako behaketetan. Bestetik, gela barruan generoen arabera taldekatze bereziak ere ikus daitezke. Adibidez, Luken (ezizena) bere genero berekoak diren hurrengana hurbiltzen da soilik. Gure emaitzak Haur Hezkuntzan eginiko antzeko ikerketa batzuen ildotik doaz, hurrek beren genero bereko kideekin elkartzeko joera erakutsi baitzuten (Carrasco-

Rueda *et al.*, 2023; Wang *et al.*, 2023). Izan ere, adin horretako hurrek lagunez osatutako taldeak osatzen ohi dituzte (Ortega *et al.*, 2014), eta, oro har, lagunak genero bereko haurrak izaten dira (Duham *et al.*, 2016). Hala ere, zenbait ikerketak erakutsi dute taldeak gehienetan mistoak direla hezitzaileek eratzten dituztenean (Kutnick *et al.*, 2002; 2007), ziurrenik taldekatzeei aberastasun bat eman nahian eta haurrak berdintasunezko harremanak eraikitzen trebatzeko helburuarekin.

2. taula. Haurren taldekatze motaren inguruan egindako ikerketaren emaitzak.

EGUNA	KOPURUA	1. TALDEA	2. TALDEA	3. TALDEA
2023/02/17	N = 15	5 mutil / 0 neska	0 mutil / 5 neska	3 mutil / 2 neska
2023/02/28	N = 15	5 mutil / 0 neska	0 mutil / 5 neska	3 mutil / 2 neska
2023/03/06	N = 13*	5 mutil / 0 neska	0 mutil / 5 neska	3 mutil / 0 neska

*Egun honetan bi haur gaixorik egon ziren eta horregatik kopurua ezberdina da beste bi egunekin alderatuta.

2.2. Materialen erabilera

Haur Hezkuntzako bost urteko gela honetan, desberdintasunak sumatu dira materialen erabilera neska eta mutilen artean. Gela barruan egon beharreko materialak estereotipatuak ez izatearen alde egin den arren, hurrek haien gaineko zenbait estereotipo sortu dituztela ondorioztatu da. Esaterako, behaketa batean, neskaz osatutako talde bat etxe-txokoan zegoen bitartean, jolas sinbolikoan murgilduta, ile-apaindegian zeudelakoan ari ziren. Horretarako, espazio horretan zeuden ile-apaindegiko tresnak erabiltzen zituzten, hala nola ile-lehorgailuarekin ilea lehortzen zuten, orraziarekin ilea orrazten zuten eta artaziekin ilea mozten zuten. Aldiz, beste behaketa batean jasotakoaren arabera, mutilez osatutako taldeak, etxe-txokoan murgildu eta material berak hartzean, horiei emandako erabilera guztiz desberdina izan zen. Hots, ile-lehorgailua pistola irudikatzeko erabili zuten, eta aldi berean, gainerako materialak ere borrokan aritzeko erabili zituzten. Materialen erabilera desberdinari dagokionez, askotan neskek eta mutilek material eta jostailuen aukeraketa desberdina egiten dute (Carrasco-Rueda *et al.*, 2023; Skočajić *et al.*, 2020), baina, gela barruan objektu eta jostailu berberak erabiltzen dituztenean ere, batzuetan beste erabilera bat ematen diete (Rodríguez, Hernández eta Peña, 2004). Ikerketa honetan, adibidez, ile-lehorgailuaren erabilera desberdina egin dute. Beste autore batzuek lehenago azpimarratu duten bezala, hurrek jostailua eraldatzen dute garatzen duten jolasarekin edo ekintzarekin bat egiten duen esanahia emateko (Thiemann-Bourque *et al.*, 2019), eta badirudi haurren generoak horretan zerikusia izan dezakeela. Aurreko ikerketa batzuetan ondorioztatu den bezala, Haur Hezkuntzako hurrek dagoeneko genero-estereotipoak barnetatuta dituztela sumatzen da lan honetan ere (Qian *et al.*, 2023; Rodríguez-Fernandez, 2020).

2.3. Mozorroen aukeraketa

Behaketak gauzatu diren epean, inauteriak izan ziren. Ikastetxean data hori ospatzen zela baliatuta, egun horretan hurrek jantzitako mozorroak aztertu ziren, eta hainbat emaitza eta ezaugarri bildu. Mozorroak, eskolak eskaini eta hurrek aukeratutakoak izan ziren. Hurrek mozorroak libreki hautatu zituzten arren, eskola horretan, urte eta momentu konkretu horretarako erositakoak zirela aipatu behar da. Alde batetik, neskek erabilitako mozorroen artean, printzesen mozorroa edota takoidun zapatez eta makillajez sortutako mozorroen erabilera behatu zen. Mutilen kasuan, aldiz, kontrako emaitzak bildu ziren, aukeratutako mozorroak, superheroienak izanik guztiak (ikus 3. taula). Castillo-Viera eta Tornado-Quiñones autoreek (2012) antzeko emaitzak lortu zituzten Haur Hezkuntzako hurrekin; superheroien mozorroak izan ziren mutilek gehien erabili zituzten mozorroak, eta printzesenak neskek. Valera eta Paternak (2016) Haur Hezkuntzako hurrei beren mozorro gogokoenei buruz galdetu zieten eta ondorioztatu zuten printzesa, maitagarria, tximeleta, gerlari eta banpiroa zirela ohikoenak nesken kasuan, eta superheroia, burezurra, deabrua eta erregea mutilen kasuan. Haur Hezkuntzako neskek eta mutilek koloreen, lanbideen eta mozorroen aukeraketa desberdina egiten dute (Rodríguez-Fernandez, 2020), eta hau izan daiteke haurren mundua inguratzen duen guztia balioz eta mezuz beteta dagoelako (Font, 2009; Midgett *et al.*, 2023), hala nola publizitateak rol sexisten dibulgazioan eragina izatea (Gasol *et al.*, 2019). Egindako behaketetan genero-estereotipoek jarraitzen diete hurrek mozorroa aukeratzeko orduan, eta beste ikerketa batzuekin bat datoz emaitza hauek (Dinella, 2017; Valera eta Paterna, 2019).

3. taula. Mozorroen aukeraketaren arabeko emaitzak.

MOZORROA	NEKAK	MUTILAK	ALDIZKARIETAKO ZEIN ATALETATIK ERATORRITAKOAK?
Superheroia	0 (% 0)	8 (% 100)	Mutilen atala
Printzesa	5 (% 71.4)	0 (% 0)	Nesken atala
Katua	1 (% 14.3)	0 (% 0)	Nesken atala
«Miércoles»	1 (% 14.3)	0 (% 0)	Nesken atala

2.4. Genero-estereotipoak

Hurrek izan dituzten genero-adierazpenak kontuan hartuta, Haur Hezkuntzako bost urteko gela honetako hurrek gizezkoen rol maskulinoak eta emakumezkoen rol femeninoak jada esleitzen dizkietela ikusi zen egindako behaketetan, hurrengo pasartean ikus daitezkeen antzera:

Gelako hurrek etxeko jostailu txikiak, apaingarriak edota antzeko objektuak ekartzea gustuko dute, irakasleari eta gainerako hurrei erakusteko helburuarekin. Goiz batean, Ander, etxetik ekarritako brillantinazkoa den karteratxo batekin sartu da gela barrura. Xabierrek, Anderrek ekarritakoa ikusitakoan, ondorengo esan dio: «Ander, neska zara».

Hala ere, aurretik aipatutako hori, ez da egoera bakarra izan:

Izaro eta Laura txoko batean daude lanean, ondorengo elkarrizketa duten bitartean: «Gaur euskal dantza dut» azaltzen du Izarok. Laurak ondorengo erantzuten dio; «Zu bakarrik joaten zara?», «Ez, Xabierrekin» erantzuten dio Izarok. «Xabierrek dantza egiten du?» esaten dio Laurak ulertuko ez balu bezalako keinua eginez, horrela jarraitzen duen bitartean: «Baina, Xabier mutila da», «Bai, eta?» dio Laurak, azkenik, «Ba ezin duela dantza egin» erantzuten du Laurak.

Genero-adierazpenari dagokionez, Haur Hezkuntzako haurrek mutilak indartsu, ausart, basati, bihurri eta on gisa definitzen dituzte, eta neskek, berriz, on, maitekor, beldurti, sentikor eta eder gisa (Solbes-Canales *et al.*, 2020; Valerak eta Paternak, 2016). Haur Hezkuntzako haurrek dituzten genero-estereotipoak eta -rolak agerikoak dira (Carrasco-Rueda *et al.*, 2023; King *et al.*, 2021), eta ikerketa honen emaitzek erakusten dutenez, haur batek tradizionalki genero femeninoarekin lotu izan den zerbait egiten edo esaten duenean (brillantiazko objektua erabiltzea edo dantzatzea), haurrak harrিতa sentitu ziren. Hala ere, ikerketa honetan, ez da kontrako kasua erakusten duen emaitzarik lortu: neska batek modu tradizionalan genero maskulinoarekin bat egin duen ekintza bat egitea eta gainontzeko haurrak harriztea. Joera hori azken urteetan aldatzen ari dela pentsa daitekeen arren, Lumbreras-Castellanosek (2013) erakutsi zuen gizarteak hobeto onartzen duela neska batek autoekin jolastea haur batek panpinekin jolastea baino.

2.5. Genero-rolak jolas sinbolikoan

Gela barruan aurkitu daitezkeen espazio ugariak jolas sinbolikoa gauzatzeko bidea ematen dute. Ekintza honen harira, zenbait emaitza jaso dira, etxe-txokoan sortu dituzten egoera eta elkarrizketak izanik genero-rolen presentzia eta adierazpen adierazgarri nabarmenenak (ikus 4. taula). Garrantzitsua da nabarmentzea jolas sinbolikoak ez dituela estereotipoak beren kabuz desagerrarazten, eta haurrak hazten diren heinean espero diren rolak hartzen dituztela Cordero-Beasen arabera (2013). Izan ere, Haur Hezkuntzako haurrek genero-estereotipoak barneratuta dituztela diote hainbat lanek (González-Barea eta Rodríguez-Martin, 2020; Qian *et al.*, 2023), eta jolas sinbolikoan beren familia-ingurunean, gizarte-ingurunean eta komunikabideetan ikusten dituzten jokabideak imitatzen dituzte (Döring eta Mohseni, 2019; Solbes-Canales *et al.*, 2020). Ikerketa honetan egindako behaketetan, neskek etxeko lanetan eta zaintzan oinarritutako jolas sinbolikoak egiteko joera erakutsi zuten bitartean, mutilek, berriz, jolas sinboliko horren parte izan arren, ez zituzten etxeko lanak egiten. Are gehiago, mutilek etxetik kanpoko lanak ere aipatu zituzten, nesken kasuan inoiz agertu ez ziren bitartean. Horren arrazoia izan daiteke haurrek rol desberdinak esleitzen dizkietela gizonei eta emakumeei familian ikusten dutenaren arabera, eta etxe askotan amak dira etxeko lan gehienak egiten dituztenak (Midgette *et al.*, 2023; Shannon, 2023). Gainera, mutilek inguruko gizonek betetzen ez duten papera gauzatzeko saihesten dutela ikusi zen (Carrasco-Rueda *et al.*, 2023; Rodríguez, Hernández eta Peña, 2004). Aurreko ikerketetan ikusi den bezala, ikerketa honetako emaitzek ere erakusten dute Haur Hezkuntzako haurren genero-estereotipoak barneratuta dituztela eta jolas sinbolikoan horiek azaleratzen dituztela (García-Prieto eta Arriazu-Muñoz, 2020). Hala ere, zenbait azterlanek erakutsi

dute neska-mutilen jokabide berezia jolas sinbolikoan 4 urtetik aurrera gertatzen hasten dela (Rodríguez, Hernández eta Peña, 2004; Sotevik *et al.*, 2019), eta Haur Hezkuntzako haur gehienek aldez aurretiko jarrera ona erakusten dutela genero-estereotipoak aldatzeko (Henriques eta De Jesus, 2016).

4. taula. Haurren arteko elkarrizketak eta genero-adierazpenekin duten lotura.

EGUNA	ESPAZIOA	PARTE-HARTZAILEAK	ELKARRIZKETA	BEHATUTAKO GENERO-ADIERAZPENAK eta INTERPRETAZIOA
2023/02/20	Etxe-txokoa	Olaia (Ama) Laura Unai	Olaia, trapua eskuan duela, etxe-txokoa garbitzen dago eta ama dela adieraziz, Laura garbitzera gonbidatzen du.	Laura eta Unai garbitzera animatu beharrean, egindako behaketaren arabera uler daiteke emakumezkoen lantzat hartzen dela garbiketalarana.
2023/02/28	Etxe-txokoa	Danel (Aita) Andrea (Ama) Mara (Haurra)	Ama (Andrea) etxeko zereginetan dabil. Aitak (Danel) bitartean: «Yo voy a comer ya rápido que me voy a currar».	Aita ez dabil etxeko zereginetan, azkar bazkaldu behar du etxetik kanpo lan egin behar duelako.
2023/03/06	Etxe-txokoa	Andrea (Ama) Olaia (Haurra) Laura (Katua) Izaro (Txakurra) Ane	Ane etxe-txokora sartu berri da eta Olaia haur txikiarena egiten dagoela ikusita, ondorengoa esan du: —Kaixo umetxo (besarkada bat ematen dion bitartean). Andrea (Ama) korrika batean hurbildu zaio ondorengoa esanez: —Eh, Ane, ni naiz ama. Anek hurrengoa erantzun dio: —Bale... ba ni beste haurra izan naiteke?	Egoera honetan, aitarena egitea edota beste ama bat izatea baino lehen, burura beste haur bat sartzea datorkiela ikus daiteke.
2023/03/06	Etxe-txokoa	Danel Kepa	Danel: —Begira, Kepa, pun-pun! (lehorgailuarekin apuntatzen duen bitartean). Kepak beste lehorgailua hartu eta berdina egiten hasi da.	Materialei erabilera desberdina eman zaie, bortizkeriara bideratuta.

2.6. Txokoen aukeraketa

Zenbait autorek ondorioztatu dute estereotipoen presentzia dagoela Haur Hezkuntzan (García-Prieto eta Arriazu-Muñoz, 2020), eta, ikerketa honetan ikusitakoaren arabera, badirudi espazioak partekatzea ez dela nahikoa hezkidetzaz gauzatzeko, Cordero Beasekin bat etorritz (2013). Izan ere, behaketak egin diren heinean, beste alderdi esanguratsu bat nabarmendu da, hots, txokoen aukeraketan agertutako desberdintasunak. Bildutako datuen arabera, mutilek edota neskek hartzen duten espazioa ezberdina da. Alegia, txokoetan aritzen hasi orduko egiten zen lehenengo aukeraketan, egindako behaketetan, neskek marrazketa-txokoa hautatzen zuten, mutilek, eraikuntza-txokoa edota ordenagailuekin aritzea aukeratzen zuten bitartean. Saioak aurrera egin ahala, alde batetik, beste txoko batzuetara igarotzen ez ziren haurrak zeuden. Neskei dagokienez, saio osoa marrazketa-txokoan ematen zutenak eta eraikuntza-txokoan ziharduten mutilak. Bestetik, gainerako hurrek, saioan zehar, beste txoko batzuk aukeratzen zituzten lanean aritzeko. Hala ere, behin baino gehiagotan errepikatu zen alderdi bat izan da. Hots, behaketetan, neskak, marrazketa-txokotik etxe-txokora edota matematika-txokora igarotzen ziren bitartean, mutilak, eraikuntza-txokotik ordenagailuekin jolastera joaten zirela eta alderantziz. Hjelmér-ek (2020) ere desberdintasunak aurkitu zituen Haur Hezkuntzako haurren txokoen aukeraketan; neskek etxearen eta ile-apaindegiaren txokoak aukeratzen zituzten gehienbat, eta mutilek, berriz, eraikuntza- eta suhiltzaile-txokoak. Hala ere, García-Prietok eta Arriazu-Muñozek (2020) egindako beste ikerketa batean ondorioztatu zen zenbait txokoen aukeraketatan ez zegoela desberdintasunik, adibidez eraikuntza-txokoan. Azterlan honetan, berriz, desberdintasun nabaria antzematen da eraikuntza-txokoaren aukeraketan neska eta mutilen artean.

5. taula. Txokoen aukeraketaren behaketaren ondorioz lortutako emaitzak.

Eguna	Unea	Eraikuntza	Marrazketa	Matematika	Hizkuntza	Ordenagailua	Eixetxoa
2023/02/15	Hasierako aukeraketa	7 mutil / 0 neska	0 mutil / 6 neska	0 mutil / 1 neska	0 mutil / 0 neska	1 mutil / 0 neska	0 mutil / 0 neska 0 mutil / 0 mutil / 0 neska
	Ordu-erdi igarota	7 mutil / 0 neska	5 mutil / 0 neska	1 mutil / 0 neska	0 mutil / 0 neska	1 mutil / 1 neska	0 mutil / 0 neska
2023/02/20	Hasierako aukeraketa	6 mutil / 0 neska	0 mutil / 5 neska	0 mutil / 0 neska	0 mutil / 2 neska	2 mutil / 0 neska	0 mutil / 0 neska
	Ordu-erdi igarota	4 mutil / 0 neska	1 mutil / 2 neska	0 mutil / 0 neska	0 mutil / 3 neska	2 mutil / 0 neska	1 mutil / 2 neska
2023/02/21	Hasierako aukeraketa	7 mutil / 0 neska	0 mutil / 5 neska	0 mutil / 0 neska	0 mutil / 0 neska	1 mutil / 1 neska	0 mutil / 0 neska
	Ordu-erdi igarota	6 mutil / 0 neska	0 mutil / 3 neska	1 mutil / 2 neska	0 mutil / 0 neska	0 mutil / 0 neska	1 mutil / 2 neska
2023/02/28	Hasierako aukeraketa	7 mutil / 0 neska	0 mutil / 6 neska	0 mutil / 0 neska	0 mutil / 0 neska	1 mutil / 1 neska	0 mutil / 0 neska
	Ordu-erdi igarota	6 mutil / 0 neska	0 mutil / 3 neska	1 mutil / 2 neska	0 mutil / 0 neska	0 mutil / 0 neska	1 mutil / 2 neska
2023/03/06	Hasierako aukeraketa	3 mutil / 0 neska	1 mutil / 2 neska	1 mutil / 0 neska	0 mutil / 0 neska	3 mutil / 0 neska	0 mutil / 5 neska
	Ordu-erdi igarota	4 mutil / 0 neska	0 mutil / 3 neska	0 mutil / 2 neska	0 mutil / 2 neska	2 mutil / 0 neska	2 mutil / 0 neska

3. Ondorioak

Ikerketa-lan honen helburua izan da Haur Hezkuntzako etapan hurrek gauzatutako jolas sinbolikoaren eta generoaren arteko harremana ikertzea. Alde batetik, Haur Hezkuntzako hurrek jolas sinbolikoa aurrera eramaten dutenean eta batez ere etxe-txokoan aritzen diren aldietan, rolak banatzeko orduan, generoari erreparatzen ziotela ondorioztatu zen. Hau da, gizarte-mailan eredu femeninoari zein maskulinoari atxikitzen zaizkien rolak barneratuta, horiek erreproduzitu eta haien jolasean txertatzen zituztela behatu zen, horiek sinetsaraziz, onartuz eta hurren artean gehiago hedatuz. Azken finean, denborak aurrera egin ahala egoera aldatu den arren, «hamarkadaz hamarkada emakumea etxeko lanak eta seme-alabak zaintzen eremu pribatuan egotea eta, aldi berean, gizona-egoera gizartean errekonozituak dauden lanpostuak izatera mugatzea» (Reizabal *et al.*, 2015), gaur egun ere, gizarteko zenbait arlotan ikus daitezkeen ideiak dira. Honenbestez, ideia horretan hazi eta heziak izanik, hurrek oharkabean jolas sinbolikoan dituzten jokaerak direla ondorioztatu da, jolas sinbolikoaren bidez, gizarte-egoera errepikatuz Prat-Tarridarekin bat eginez (2013). Halaber, behatutakoaren arabera, generoaren araberrako itxaropen, norma, arau, rol, balio, sinesmen eta jarrera zehatz batzuk helduek esleituta izanik (Colás, 2007; in León *et al.*, 2020), hurrek ere Haur Hezkuntzako etapan barneratuta dituztela ikusi da egindako lan honetan.

Bestetik, ikerketa honetan aztertutakoaren arabera, neskek eta mutilek hartzen duten gelako espazioa ez da berdina izaten. Esaterako, txokoen aukeraketari jarraikiz egin ziren behaketen ondorioz lortutako emaitzetan, nesken eta mutilen jolasak norabide desberdin bat hartzen zuela ikusi da. Horrek, etorkizun batean, gizarte-mailan erreproduzitzeko aukera dakar, Puerta eta Gonzálezek (2015) aipatutakoaren arabera, «jolasaren bidez, gizona edota emakumea den kontuan hartuta, pertsona bat zer gizarte-eremutakoa izango den zehaztu ohi delako». Ildo beretik jarraituz, ideia argia da, hurrek, genero bereko hurrekin elkartzeko, hala nola jolastokian, jarduera desberdinak egiteko orduan, jolasaldian, eta horrela, beste sexutik bereizten hasten dira Gonzalez eta Cabreraren arabera (2013). Jasotako datuek bat egiten dute autore horien ideiarekin. Hala ere, azpimarratu beharra dago desberdintasun hori ez dela soilik txokoen eta taldekatzeen aukeraketan azaltzen. Izan ere, materialen erabilerrari erreparatuz gero, Lobato Gómezek (2005) ideiarekin bat egiten dute lan honetako emaitzek. Haren hitzetan, «nahiz eta hurrek jostailu berdina erabili, objektuaren erabilera guztiz desberdina da, jostailua eraldatuz, egin nahi duten ekintzara eta garatzen ari diren jolasera norabideratzen baitute horien erabilera». Hau da, azken finean, haien generoaren araberrako jokabide-ereduak iradoki eta genero bakoitzerako parte-hartze desberdina bultzatzen dutela ikusi da, Puerta eta Gonzálezekin (2015) bat eginez.

Zer esanik ez Haur Hezkuntzako etapako hurrengan, batez ere, emakumez-koengan, jada sortzen den «edertasun-kanona»-ren ideiar buruz. Behaketetan hautatutako moztorroei erreparatuta, neskek aukeratutako moztorroak, Turradorek (2017) ideiarekin bat egiten dutenak izan dira, edertasun-jostailuen eta apaingarri pertsonalen inguruak izan baitira guztiak. Betiere, Lobatok (2005) azaldutako edertasun-ereduari erreferentzia egiten dioten bitartean, «aukeratutako printzesak,

ile-hori, altu eta argalak» direnak izan baitira. Azken finean, aurretik aipatutakoak femeninotzat hartuta, mutilek, haiei bideratutako jostailuetan agertzen diren marrazkiei jarraikiz, superheroiak izatea aukeratzen dute. Hau kontuan hartuz, jostailuen inguruko aldizkariak haurren eragina izan dezaketela ikusi daiteke Lobatori jarraikiz (2005). Alegia, mozorroen aukeraketan genero-estereotipoak nabarmentzen direla ikusi da, neskek, beren burua, maitagarri, polit eta on moduan sailkatzen dutelarik, aldi berean, mutilak ausart, azkar edota indartsu moduan identifikatuz (Solbes-Canales *et al.*, 2020; Valera eta Paterna, 2016).

Ondorioz, Haur Hezkuntzako haurrek jada genero-rolak eta genero-estereotipoak barneratuta dituztela ikusi da, beste hainbat ikerketak egin duten antzera, hala nola Qian *et al.*ek (2023). Horiek, ondorio moduan, aurretik aipatutako haurren jarrera eta jokabide desberdinak dakartzate, genero-adierazpen desberdinak plazaratu eta sustatzen dituztelarik. Lan honen bidez, ikusi da hezitzaileek betebeharrak handia dutela, gizarte-mailan eragiten duen egoera eraldatzeko, Haur Hezkuntzatik hasita, txiki-txikitatik genero-estereotipoak barneratu dituztelako. Ondorioz, eta eskola hezkidetzaillea zein kalitatezkoa helburu, ezinbestekoa da batetik; hezitzaileak beturreko moreak jarrita eguneroko jarrera txikien aurrean adi egotea. Esaterako, Haur Hezkuntzan, jolas sinbolikoa horretarako espazio aparta dela ikusi da, hain sinetsiak eta eraikiak dituzten pertsonaia zein egoeren aurrean, hausnarketara bideratutako galdera edota ekintzen bidez, horiek deseraikitzen gonbidatu daitezkeelakoan. «Haurrentzat jolastu, eta ez haurrekin jolastu» filosofiarekin bat eginez (Franch, 2018), beren jolasean libre utzita ere hezitzaileok esku hartu dezakegu pertsonaia berriak gorpuztuz eta haien jolasean sartuz, sinetsitako genero-rolak auzitan jartzera gonbidatuz haurrek. Esaterako, etxeko lanetan aritzen diren figura maskulinoak gorpuztuz, edota rol tradizionalekin hausten duten figura femeninoak irudikatuz.

Lan hau ez da mugez salbuetsita egon eta garrantzitsua iruditzen zaigu horiek aipatzea. Haur Hezkuntzako etapan, parte-hartzaileen adin txikiak ezaugarritzen du, eta, haien jokabideak ulertu ahal izateko, zinez interesgarria izango zen arren, ez dugu haien iritzia jasotzeko teknikarik erabili lan honetan. Honenbestez, parte-hartzaileen ahotsa falta izan zaigu hasteko eta behin. Bost urteko haurren gaitasun kognitiboak hartuta, doitutako metodologia baten bitartez, interesgarria litzateke aztertzea ea zer egon daitekeen haien jolas sinbolikoen atzean lan honen emaitzak sakonago aztertu eta triangelatu ahal izateko. Bestalde, datuak biltzeko garaian, grabaziorik gabe egin da, eta horrek ikertzaileak egindako behaketaren lan fina zalantzan jarri nahi ez duen arren, ezin da ukatu agian jaso gabeko gertaera batzuk ezin izan direla bildu, edota bildutakoak birritan behatu, bi begi baino ez baitzeuden zuzenean lanean. Era berean, interesgarria litzateke denbora luzeago zein jarraipen estuago batekin jarraitzea gai honi buruz ikertzen, baita etapako beste adin batzuk edota adin bereko gela gehiago aztertzea. Honenbestez, lan honek gai hau itxi eta ebatzi baino areago, galdera, eztabaida eta ideia berriei bidea zabaltzeko dielakoan gaude, Haur Hezkuntzako bost urteko gela bateko jolas sinbolikoaren eta genero-adierazpenaren inguruko datu batzuk argitara ekartzearekin batera.

4. Erreferentzia bibliografikoak

- 75/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Haur Hezkuntzako curriculumuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkaria*, 109. zk, 2023ko ekainaren 9a, ostirala. Hemendik berreskuratuta: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/06/2302727a.pdf>
- Adam, Nicolas *et al.* (2022). A multidimensional evaluation of the benefits of an ecologically realistic training based on pretend play for preschoolers' cognitive control and self-regulation. *Journal of Experimental Child Psychology*, 216, 105-348. DOI: 10.1016/j.jecp.2021.105348
- Anguera, Maria Teresa; Blanco-Villaseñor, Angel; Losada Jose Luis, eta Sánchez-Algarra, Pedro (2020). Integración de elementos cualitativos y cuantitativos en metodología observaciona. *Ámbitos. Revista Internacional de Comunicación*, (49), 49-70. DOI: 10.12795/Ambitos.2020.i49.04
- Aragóns-González, María; Rosser-Limiñana, Ana, eta Gil-González, Diana (2020). Coeducation and gender equality in education systems: A scoping review. *Children and Youth Services Review*, 111, 104-837. DOI: 10.1016/j.childyouth.2020.104837
- Arrondo, Pello, eta Sagastume, Nekane (1992). Kurrikulumarekiko zeharkakoak diren ildo edo ardatzak eta hezkidetza Haur Hezkuntzan. *Jakingarriak*, (22), 24-29.
- Asociación Española de Fabricantes de Juguetes (2022). Código de autorregulación de la publicidad de juguetes. Hemendik berreskuratuta: https://www.autocontrol.es/wp-content/uploads/2022/04/capij_anexo-protocolo-d_gc_autocontrol_aefj.pdf
- Cankaya, Ozlem *et al.* (2023). Preschool Children's Loose Parts Play and the Relationship to Cognitive Development: A Review of the Literature. *Journal of Intelligence*, 11(8), 151. DOI: 10.3390/jintelligence11080151
- Carrasco Rueda, Ana Belen; González Gijón, Gracia, eta Martínez Heredia, Nazaret (2023). Systematic review on gender socialisation in pre-school education. *Journal of research on Social Pedagogy*, 43, 192-204. DOI: 10.7179/PSRI_2023.43.13
- Castilla, Ana Belén (2008). Coeducación: Pautas para su desarrollo en los centros educativos. *Escuela Abierta*, 11, 49-85.
- Castillo-Viera, Estefania, eta Tornado Quiñones, Inmaculada (2012). Análisis de los valores que transmiten los disfraces en la etapa de educación infantil y propuesta de modificación para su inclusión en clase de educación Física. *EmásF Revista Digital de Educación Física*, 14(3), 81-91.
- Cordero Beas, Luz Maria (2013). Barreras para el abordaje de la coeducación en la escuela infantil y primaria. *Cuestiones de género: de la igualdad y la diferencia*, 8, 201-221.
- Dinella, Lisa (2017). Halloween Costume Choices: Reflections of Gender Development in Early Childhood. *Journal of Genetic Psychology*, 178(3), 165-178. DOI: 10.1080/00221325.2017.1295223
- Dunham, Yarrow; Baron, Andrew Scott, eta Banaji, Mahzarin (2016). The development of implicit gender attitudes. *Developmental Science*, 19(5), 781-789. DOI: <https://doi.org/10.1111/desc.12321>
- Diaz, Ariane (2011). Diversión es destino. Desde la niñez, juegos y juguetes imponen estereotipos sexistas. *La jornada*, 2-3. Hemendik berreskuratuta: <https://www.jornada.com.mx/2011/12/24/politica/002n1pol>
- Font, Raquel (2009). Un seminario de práctica reflexiva colaborativa para el desarrollo profesional de maestros de Educación Física. Una propuesta para educar en valores. *Cultura y Educación*, 21(1), 81-94.
- Franch, Nuria (2018). *Poética corporal*. Ediciones Octaedro.
- García, Alfonso, eta Lull, Josué (2009). *El juego infantil y su metodología*. Editex.

- García-Prieto, Itziar, eta Arriazu-Muñoz, Ruben (2020). Estereotipos de género en educación infantil: Un estudio de caso desde la perspectiva sociocultural. *Zero-a-Seis*, 22(41), 4-30.
- Gasol, Mónica (2019). La presencia de estereotipos de género en publicidad. Dos décadas de análisis. *Quaderns del Cac*, 22(45), 37-45.
- Gómez, Juan Fernando (2012). El juego infantil y su importancia en el desarrollo. *CCAP*, 10(4), 5-13.
- Gonzalez, María Patricia, eta Cabrera, Claudia Carolina (2013). Actitudes hacia los roles sexuales y de género en niños, niñas y adolescentes (NNA). *Plumilla Educativa*, 12(2), 339-360.
- González-Barea, Eva Maria, eta Rodríguez-Martin, Yolanda (2020). Estereotipos de género en la infancia. *Revista Interuniversitaria*, 125-138.
- Gutiérrez, Ana Brígida (2010). Educando en igualdad desde la etapa Infantil. *Innovación y experiencias*, 1(36), 1-8.
- Herranz, Pilar (2013). Teorías y desarrollo del juego. In P. Herranz eta P. Sierra (argtz.), *Psicología Evolutiva I. Volumen II. Desarrollo social*, (225-247. or.). Universidad Nacional de Educación a Distancia.
- Henriques, Helder, eta De Jesus, Amelia (2016). Educacao para a igualdade de género: leituras a partir da realidade de cinco jardins de infancia do distrito de Portalegre, Portugal. *Foro de Educación*, 14(20), 339-360.
- Hjelmér, Carina (2020). Free play, free choices? Influence and construction of gender in preschools in different local contexts. *Education Inquiry*, 11(2), 144-158. DOI: 10.1080/20004508.2020.1724585
- Imhoff, Roland, eta Hoffman, Lisa (2023). Prenatal sex roles stereotypes: Gendered Expectations and Perceptions of (Expectant) Parents. *Archives of Sexual Behavior*, 52, 1.095-1.104. DOI: 10.1007/s10508-023-02584-9
- King, Rachel Ann *et al.* (2020). Counterstereotyping can change children's thinking about boys' and girls' toy preferences. *Journal of Experimental Child Psychology*, 191, 104753. DOI: 10.1016/j.jecp.2019.104753
- King, Tania *et al.* (2021). Gender stereotypes and biases in early childhood: A systematic review. *Australasian Journal of Early Childhood*, 46(2), 112-125. DOI: 10.1177/1836939121999849
- Kutnick, Peter; Blatchford, Peter, eta Baines, Ed (2002). Pupil groupings in Primary School classrooms: sites for learning and social pedagogy? *British Educational Research Journal*, 28(2), 187-206.
- Kutnick, Peter *et al.* (2007). The role and practice in interpersonal relationships in European early education settings: sites for enhancing social inclusion, personal growth and learning? *European Early Childhood Education Research Journal*, 15(3), 379-406.
- León Hernández, Irati; Gamito Gómez, Rakel, eta Etxebarria Perez de Nanclares, Olatz (2022). Experiencias encarnadas: diálogos sobre las memorias de la infancia y la actividad física escolar. *Tándem*, (78), 7-12.
- León, Irati *et al.* (2020). Haur Hezkuntzan genero-ikuspuntutik egiten den lanketa. *Uztaro*, 112, 41-60.
- Lester, Stuart, eta Russell, Wendy (2010). *Children's right to play: an examination of the importance of play in the lives of children worldwide*. The Netherlands: Bernard van Leer Foundation.
- Licona Vega, Ana Liliam (2000). La importancia de los recursos materiales en el juego simbólico. *Pixel-Bit. Revista de Medios y Educación*, 14, 13-21.
- Lillard, Angeline *et al.* (2013). The impact of pretend play on children's development: a review of the evidence. *Psychological Bulletin*, 139(1), 1-34. DOI: 10.1037/a0029321

- Lobato, Emma (2005). Juego sociodramático y esquemas de género. Una investigación en educación infantil. *Cultura y Educación*, 17(2), 115-129.
- Lumbreras-Castellanos, Natalia (2013). *Estereotipos de género en los juguetes de los niños*. Browne.
- Midgette, Allegra *et al.* (2023). US and Chinese preschoolers normalize household labor inequality. *Proceedings of the National Academy of Sciences*, 120(38), e2301781120. DOI: 10.1073/pnas.2301781120
- Mózes, Eszter (2016). La observación en la Pedagogía Pikler. *RELAdeI. Revista Latinoamericana De Educación Infantil*, 5(3), 27-35.
- Nicola, Döring, eta Rohangis, Mohseni (2019). Male dominance and sexism on YouTube: results of three content analyses. *Feminist Media Studies*, 19(4), 512-524. DOI: 10.1080/14680777.2018.1467945
- Ortega, Rosario (1992). *El juego infantil y la construcción social del conocimiento*. Alfar.
- Ortega, Rosario *et al.* (2014). Actividad e interacción entre iguales: explorando el mapping como instrumento de observación en aulas de Educación Infantil. *Journal for the Study of Education and Development*, 32(3), 405-420.
- Prat-Tarrida, Anna (2013). *La educación emocional a través del juego simbólico* [Gradu Amaierako Lana]. Errioxako Nazioarteko Unibertsitatea, Hezkuntza Fakultatea.
- Puerta, Sara, eta González, Eva María (2015). Reproducción de los estereotipos de género en Educación Infantil a través de los juegos y juguetes. *Investigación en la escuela*, (85), 63-74.
- Qian, Miao *et al.* (2023). Children's implicit gender-toy association development varies across cultures. *Developmental Psychology*, 59(12), 2287-2295. DOI: 10.1037/dev0001590
- Reizabal, Luixa; Eldua, Maialen, eta Areizaga, Idoia (2015). *Genero-berdintasunean hezteko gida. Familia, irakasle eta bestelako hezitzaileentzat*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Rodríguez, Maria del Carmen; Hernández, Jesus, eta Peña, Jose Vicente (2004). Pensamiento docente sobre el juego en educación infantil: análisis desde una perspectiva de género. *Revista española de Pedagogía*, 299, 455-466.
- Rodríguez-Fernandez, Blanca (2020). Evaluación de los estereotipos de género en educación infantil. *Know and Share Psychology*, 1(3), 63-70.
- Ruiz de Velasco-Galvez, Ángeles, eta Abad-Molina, Javier (2011). El juego simbólico. *Arteterapia: Papeles de arteterapia y educación artística para la inclusión social*, 6, 303-304.
- Ruiz Olabuénaga, Jose Ignacio. (2007). *Metodología de la investigación cualitativa*. Universidad de Deusto.
- Scott, Hannah, eta Cogburn, Mark (2023). *Peer Play*. StatPearls Publishing.
- Skočajić, Milica *et al.* (2020). Boys Just Don't! Gender Stereotyping and Sanctioning of Counter-Stereotypical Behavior in Preschoolers. *Sex Roles*, 82(4), 163-172. DOI: 10.1007/s11199-019-01051-x
- Solbes-Canales, Irene; Valverde-Montesino, Susana, eta Herranz-Hernández, Pablo (2020). Socialization of gender stereotypes related to attributes and professions among young Spanish school-aged children. *Frontiers in Psychology*, 11, 609. DOI: 10.3389/fpsyg.2020.00609
- Sotevik, Lena; Hammarén, Nils, eta Hellman, Anette (2019). Familiar play: age-coded heteronormativity in Swedish early childhood education. *European Early Childhood Education Research Journal*, 27(4), 520-533. DOI: 10.1080/1350293X.2019.1634239
- Suberviola Ovejas, Iratxe (2012). Coeducación: un derecho y un deber del profesorado. *Revista electrónica interuniversitaria de formación del profesorado*, 15(3), 59-67.

- Thiemann-Bourque, Kathy; Johnson, Lynette, eta Brady, Nancy (2019). Similarities in functional play and differences in symbolic play of children with autism Spectrum disorder. *American Journal on Intellectual and Developmental Disabilities*, 124(1), 77-91. DOI: 10.1352/1944-7558-124.1.77
- Turrado, Meritxell (2017). *Sexismo en la publicidad infantil de juguetes: Un análisis en la memoria de la publicidad que marcó a la generación Z* [Gradu Amaierako Lana]. Valladolideko Unibertsitatea, Zuzenbide eta Komunikazio Zientzien Fakultatea.
- Ungerer, Judy, eta Sigman, Marian (1981). Symbolic play and language comprehension in autistic children. *Journal of the American Academy of Child Psychiatry*, 20(2), 318-337. DOI: 10.1016/S0002-7138(09)60992-4
- Valera, Lucía, eta Paterna, Consuelo (2016). Ideología de género en el alumnado de Educación Infantil. Murtziako Unibertsitatea (Espinardo kanpua), Psikologia Fakultatea, Psikiatria eta Gizarte Psikologia Saila.
- Wang, Michelle; Ng, Vivian, eta Gleason, Tracy (2023). Toy stories: Children's use of gender stereotypes in making social judgments. *Acta Psychologica*, 235, 103.879. DOI: 10.1016/j.actpsy.2023.103879